

KONTUAN HARTZEKOAK

Saioa antolatzeko

1.- Aukeratu ezazu bertso saioaren eredua

- Pentsatu ezazu zein den zure herrira edo testuingurura ondoen egokitzen den saioa edo formatua. Bertsolaritzak forma ezberdinak har ditzake testuinguruaren arabera; zuenerako hoberena zein den pentsatzea da lehen pausua.
- Aukeratu itzazu bertsolariak eta gai-jartzailea. Behin saioa erabakita, pentsatu ezazu zenbat bertsolari kontratatu nahi dituzun, eta nortzuk. Era honetako saioak gai-jartzailea eskatzen badu, aukeratu ezazu, halaber, gai-jartzailea. Gai-jartzailea herriko norbait bada, bertsolaritzaren oinarrizko jakintza izatea beharrezkoa da. Era berean, gai-, jartzailearen esku, ere, badago saioa ondo ateratzearen bermea.

Saioan bertan kontuan hartzekoak

2.- Baliabide teknikoak bermatzea

Bertso saioa ez da teknikoki ekitaldi konplexua, hala ere, bete beharreko baldintza tekniko eta logistiko batzuk eskatzen ditu, ekitaldia ahalik eta ondoen joan dadin.

- Soinu azpiegitura egokia, hau da, saioa antolatuko den aretora edo plazara ondo egokituko dena. Bi bertsolariko mikro bat eta monitore bat, mikroak oinarekin. Monitorea beharrezkoa da euren ahotsa ondo entzun dezaten. Gai-jartzailea dagoen saioetan mikro bat behar du.

- Bertsolarientzako aulkiak. Entzulearen lehen aulki ilarak 3 metro baino urrunago ez du egon behar. Urruntasuna ez da bertsotarako lagun ona.
- Bertsolarientzako ura. Bertsolari bakoitzarentzat botila bana ur.

Hornikuntza nahikorik ez baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, eta zerbitzua eskainiko dizugu.

3.- Bertsolariei harrera eta erosotasuna

Bertsolariak beste edozein artistaren baldintzak behar dituzte euren lana egitera doazenean. Herrira iristean aparkatzeko lekua izatea (bi-hiru leku erreserbatuta izatea) garrantzitsua da. Harrera egingo dien pertsona bat izendatzea, eta iritsi ahala harrera egitea. Azkenik, bertsolariak, saioan, jakin beharreko berezitasunik badago aurrez abisatzea komeni da.